



Durangaldeko **KOPA**

II.Edizioa

Araudia



Durangaldean egingo diren zortzi mendi-lasterketen artean sortu zen 'Durangaldeko Kopa'. Aurtengoa bigarren edizioa izango da eta berriz ere 7 Pago, Amaraune, Zaldutrail, Astotrail, Mañaritik Atxetara, Sorginen lasterketa, Aramotz eta Aldapegora mendi lasterketak izango dira koparako puntuagarriak.

Nobedade bezala aurtengoan bi kopa egongo dira. Hauek Euskal eta Durangaldeko bi izaki mitologikoen izenak izango dituzte:

- MARI KOPA**
- SUGAAR KOPA**

MARI KOPA-k maratloi-erdi inguruko mendi lasterketak batuko ditu eta SUGAAR KOPA-k mendi lasterketetako modalitate motzenak.

Durangaldeko mendi nagusietatik ibiltzeko aukera izango duzue, hala nola, Urkiolako Parke Naturaletik eta baita Oiz mendiko txokoetatik ere. Era guztietako lasterketetan parte hartzeko aukera paregabea dago, harriz beteriko mendi lasterketak, baso-zelai erakoak eta luzeera-gogortasun ezberdinekin.

Kopan parte hartzeko aukera edonork izango du, lasterketa bakoitzean izena ematearekin nahiko izango delarik.

Ez galdu Durangaldeko mendi ederrak ezagutzeko aukera paregabea!

1. LASTERKETEN DATAK ETA EZAUGARRI TEKNIKOAK

LASTERKETA	DATA	DURANGALDEKO MARI KOPA	DURANGALDEKO SUGAAR KOPA
	2026/05/23	25km / 1400m+	16km / 750m+
	2026/06/20	21km / 1130m+	12km / 500m+
	2026/07/11	19,6km / 1180m+	14,5km / 675m+
	2026/07/18	27km / 1200m+	16km / 700m+
	2026/09/19	22km / 2000m+	13,4km / 1100m+
	2026/10/04	21km / 1700m+	11km / 890m+
	2026/10/17	22km / 1300m+	11km / 700m+
	2026/10/24	26km / 1700m+	15km / 700m+

2. KOPAN PARTE HARTZEA

Bi kopetan parte hartzeko ez da inon izenik eman beharko. Lasterketetako baten parte hartuz gero, kopako sailkapenean ageriko da parte hartzailearen izena.

4 lasterketa egin beharko dira gutxienez sailkapen orokorrean agertzeko. Gehiago eginez gero, egindakoen artean 4 emaitza onenak hartuko lirateke kontuan sailkapen orokorrerako.

Baturak emandako sailkapeneko lehen bost sailkatuak sarituko dira bai emakumezko eta baita gizonezko kategoriatan (maila absolutua, 16 urtetik gorako lasterkari guztiak).

3. PUNTUAZIOAK

Honakoak izango dira banatuko diren puntuazioak lasterketa bakoitzean emakumezko eta gizonezkoen kategoriatan.

POSIZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16-20	21-25	26-30	+30
PUNTUAK	100	90	80	70	60	50	45	40	35	30	25	20	15	10	5	4	3	2	1

Astotrail eta Aramotz mendi lasterketek %20-ko puntuazio gehigarria izango dute posizio guztietan, hau da:

POSIZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16-20	21-25	26-30	+30
PUNTUAK	120	108	96	84	72	60	54	48	42	36	30	24	18	12	6	5	4	3	2

Sailkapen orokorrean puntuazio berdinketa emanez gero, ondorengo kriterioak erabiliko dira berdinketa desegiteko:

1. Aldapegora lasterketan aurretik atera duena sailkapen nagusian aurrena izango da.
2. Posizio hoberenen kopurua Aldapegora lasterketan ez badu inork parte hartu. 2 garaipen dituenak, garaipen bakarra daukana aurreratuko du. Edo 3.postu bat duenak, 4.postua bi aldiz egin duena ere aurreratuko luke

4. SARIAK

Kopa biak kontuan izanik 4500€ banatuko dira lehen bost sailkatuen artean bai emakumezko eta bai gizonezkoen kategorian. Honela banatuko dira diru sariak:

POSIZIOA	DURANGALDEKO MARI KOPA	DURANGALDEKO SUGAAR KOPA
1	500€ + Txapela + Garaikurra	250€ + Txapela + Garaikurra
2	400€ + Garaikurra	200€ + Garaikurra
3	300€ + Garaikurra	150€ + Garaikurra
4	200€ + Garaikurra	100€ + Garaikurra
5	100€ + Garaikurra	50€ + Garaikurra

Kopa bietan parte hartuz gero eta bietan lehen bostetan sailkatuz gero, Mari kopako saria jasoko da bakarrik.

Sari banaketa Aldapegora mendi lasterketaren sari banaketarekin batera egingo da kopako azken lasterketa delako.

Sariak jasotzeko, lasterkaria Elorrion presentzialki egon beharko da. Amaierako podiumean ez egotea baina saria jasotzea ondorengo kasuetan onartuko da:

- Euskal selekzioaren deialdi baten ondorioz lasterketa batera joan beharra.
- Lesio edo familiako kontu garrantzitsuak.

Kasu hauetan antolakuntzarekin kontaktuan jarri beharko da korrikalaria durangaldekopatrail@gmail.com helbidera idatziaz 2026ko urriaren 19 aurretik.

5. ANTOLATZAILEEN OHAR ETA ESKUBIDEAK

- Norbere izenean ez dagoen dortsal batekin lasterketaren baten parte hartzen bada, antolakuntzakoek honetaz ohartu bezain pronto lasterkari hau kopako sailkapenetik kanpo utziko du.
- Iragarpen meteorologikoen ondorioz probaren bat bertan behera utzi behar izanez gero, kopako sailkapena beste lasterketetan pilotutako puntuekin sortuko da. Kasu honetan lasterketa minimoen kopurua ere gutxituko litzateke lautik hirura.
- Antolaketak araudi hau aldatzeko eskubidea du. Aldaketaren bat egonez gero, parte-hartzaileei informazio aktualizatua helaraziko zaie.